



IRIZPEN ZK.: D21-002

IRIZPENA, JARAUNSLEREN DATU PERTSONALAK KOMUNIKATZEARI BURUZKOA. DATU PERTSONAL HORIEK UDAL GAINBALIOAREN GAINEKO ZERGAREN LIKIDAZIOAN AGERTZEN DIRA, ZEINEAN ZERGADUNA JARAUNSPEN JASOGABEAREN JARAUNSLEREN BAITA

AURREKARIAK

LEHENENGO: [...] (e)ko Udaleko alkateak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

«(...) amaren jaraunspen jasogabearen jaraunslere, (...), Udal honetan idazkia aurkeztu du. Idazki horretan eskatzen du, beste hainbat gauzaren artean, hau jakitea: zein den jaraunspen jasogabe horregatik sortutako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren zenbatekoaren transferentziaren jatorria, baita entitatea, kontu-zenbakia eta titularra ere. Aurkeztutako idazkia doa honekin batera.

Horregatik, eta partikular baten datuak direnez, TXOSTENA eskatzen da, datu horiek eskatzaileari ematea bidezkoa den ala ez ebazteko (...).»

Kontsultarekin batera interesdunak Udalari egindako informazio-eskaria doa. Eskari horretan azaltzen duenez, gainbalioaren gaineko zerga (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga) ordaindu dute berak jakin gabe, baina bere zatia egozten zaio jaraunslere gisa, ez daki zein kontutatik transferitu zaion Udalari zerga horren likidazioaren zenbatekoa, ezta zein den kontu horren titularra ere.

Udalak emandako informaziotik ondorioztatzen denez, zerga hori identifikazio fiskaleko zenbaki (IFK) propioa duen **jaraunspen jasogabearengatik** likidatu da, borondatezko epean egindako transferentzia bidez, eta interesdunak, jaraunspenera deitua den aldetik, zerga horren likidazio-espeditera irispidea dauka, baina likidazio horren aurkako erreklamaziorik ez da egin orain arte. Eta zergaren likidazio-espeditetan ez dira agertzen eskatutako datuak, baizik eta aurrekariak.

BIGARREN: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

HIRUGARRENA. - Araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.



KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kontsultatzen zaio ea bidezkoa den ala ez jaraunspen jasogabearen jaraunseletako bati ematea kontuaren zenbakia eta kontu horren titularraren izena, kontu horretatik egin baitzen transferentzia haren amaren heriotzarengatik sortutako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidaziorako.

Bulegoak, kontsulta horri erantzuteko ikuspuntu gisa, datuak babesteko oinarrizko eskubidea hartuko du (2/2004 Legearen 17.1 artikulua).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamendua) 4.1 artikuluan jasota dago datu pertsonalen definizioa. Hona hemen definizioa:

«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Bankuko kontuaren titularraren identifikazio-datua zein kontuaren zenbakia datu pertsonalak dira.

Eta, hala badagokio, Udalak titularra ez den hirugarren bati informazio pertsonal hori komunikatzea, datu pertsonalen tratamendua izango da, Erregelamendu Orokorren 4.2) artikuluko definizioaren arabera:

«Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Kontuan hartu behar da Erregelamendu Orokorra ez zaiela aplikatzen hildako pertsonalen datu pertsonalen babesari. Hala ezartzen du Erregelamendu Orokorrek 27. artikuluan. Artikulu horrek dioenez, *«Erregelamendu hau ez da aplikatuko hildako pertsonen datu pertsonalen babesean. Estatu kideek eskumena dute horien datu pertsonalen tratamenduari buruzko arauak ezartzeko.»*

Ildo beretik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak 2.2 b) artikuluan ezartzen duenez, *«ez zaie aplikatuko hildako pertsonen datuen tratamenduei, 3. artikulua xedatutakoa gorabehera.»*

Premisa horretatik abiatuta, kontsultaren xede den kasuan, zehazki, datu pertsonalen titularra ez den hirugarren batek datuen «komunikazioa» edo «lagapena» eskatu du.

Erregelamendu Orokorrek 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan dagoen legimitatuta datu pertsonalen tratamendua:



- a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.
- e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean. f) letran xedatutakoa ez zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari.

Erregelamendu Orokorraren 6.3 artikulua ezartzen duenez, «1. zenbakiko c) eta e) letretan adierazitako tratamenduaren oinarria ezarri beharko du Batasuneko zuzenbideak edo tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion estatu kideetako zuzenbideak».

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, 8. artikuluan (datuen tratamendua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen egikaritzea direla-eta), honako hau ezartzen du:

«1. Datu pertsonalen tratamendua arduradunari legez eskatzen zaion betebeharrak batean oinarrituko bada –(EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.c) artikulua xedatutakoarekin bat–, nahitaez Europar Batasuneko zuzenbidearen arau batek edo lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du; arau horrek tratamenduaren baldintza orokorrak eta tratatuko diren datu motak zehaztu ahalko ditu, bai eta lege-betebeharraren ondorioz egin beharko diren lagapenak ere.

Halaber, arau horrek tratamendurako baldintza bereziak ezarri ahalko ditu; besteak beste, segurtasunerako neurri osagarriak edo (EB) 2016/679 Erregelamenduaren IV. kapituluaren ezarritako beste batzuk hartu beharra.

2. Datu pertsonalen tratamendua interes publikoan oinarritzeko edo arduradunari (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua xedatutakoaren arabera esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizunetan oinarritzeko, lege mailako arau batek esleitutako eskumenaren ondorio izan beharko du tratamenduak».

Beraz, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du lehenago transkribatu den Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluko kausetariko bat dela medio.

Eskatutako lagapena legitimatzen duten kausen artean lehenengoa interesdunaren adostasuna da, eta kasu honetan, antza denez, ezin da hori aplikatu. Horregatik, zehaztu beharko da tratamendua legitimatzen duten gainerako kausetariko bat dagoen ala ez.

Gainera, gogoan izan behar da kasu honetan, zehazki, informazio-eskaria jaso duen Udalak zerga-administrazio gisa jarduten duela, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren



likidazioa delako, eta zerga-araudiak berariazko araubidea ezartzen duela zerga-arloan ondorioak dituzten datuen lagapen edo komunikazioari dagokionez.

Hala, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoaren 94. artikulua xedatzen du zerga alorrean ondorioak dituzten datuek izaera erreserbatua dutela, eta halako datuak zerga-administrazioak kudeatu behar dituen zerga edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin izango direla erabili. Hortaz, ezingo zaizkio beste inori laga edo komunikatu, non eta xedea ez den foru arau horretan zerrendatutako kasuetako bat.

Udalak kontsultan azaltzen duenez, udalerrri horretan dagoen etxebizitza baten titularra hil ondoren hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa egin behar izateagatik eskatzen da informazioa.

Zerga hori ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauan, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoan arautzen da. Foru Arau horren 3.1 a) artikulua ezartzen duenez, zergaren subjektu pasiboa da zergadun gisa:

*«Lurren dohaineko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek dohaineko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskuratzen duen edo eskubide errealek eraketa edo eskualdaketa jasotzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo **Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea**».*

Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 34.3 artikulua xedatzen duenez, «zergapekoak izango dira (hala ezartzen den foru arauetan) **jaraunsi banatugabeak**, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutela, ekonomi batasuna edo ondare berezia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeak.

Udal zergaren likidazioa, jaraunspen jasogabera, bere IFK propioarekin egin da. Hori kontuan hartuta, zerga horren ordainketaren zenbatekoa transferentzia bidez Udalari ordaindu dion pertsonaren identitateari buruzko aurrekariak eta transferentzia egiteko erabili den bankuko kontuaren zenbakia datu erreserbatuak dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek hala ezartzen duelako, eta Udalak halako datu pertsonalak komunikatzeko ez dauka inolako lege-babesik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 10ean.